


Boli Kosta, beste gatazka bat Afrika nahasian



Boli Kostako herritarrak, borroketatik ihesean. • CHRISTINE NESBITT / AP

Afrika mendebaldeko herrialderik oparoenetakoa eta lasaienetakoa izan da Boli Kosta urte askotan, baina azken denboretan inguruko estatuetako jite gatazkatasu bera hartzen ari da

IDURRE ESKISABEL

Afrikak, batik bat, Saharaz behekoak, gaitz asko ditu. Guztietan larriena, pobrezia, horren ondorioz, milioika lagunentzako bizirik aurrera segitzea eguneroko borroka baita. Baina txirotasuna ez da berezkoa, baizik eta hainbat arrazoik —beste hainbat gaitzek— eragiten dute. Mendebaldeak ehunka urteetan bere interesen arabera usiatu izana, beren menera jardun dute tokian tokiko agintari jauntxoak bultzatu izana, berezko banaketa etniko eta erlijiosoak ukatu izana, barne gatazkak bere alde erabili izana... faktore ugari daude bizi ezin horren atzean.

Afrika mendebaldetik askotan iristen dira Europako herritarrentzat ulertzeko zailak diren barne gatazka eta gerra zibilen berriak: Sierra Leona, Liberia... Horien guztien artean, Boli Kosta salbuespen izan da urte askotan; oparotasun eta egonkortasun eredu. Inguruko herrialdeen aldean, ekonomia aberatsa izan du —munduko kakao ekoizlerik handienetakoa eta Saharaz beheko herrialdeen artean hirugarren indar ekonomiko sendoa

da—, eta barne borrokarik gabe bizi izan dira. Funtsean, paradisu bat.

Azken hiruzpalau urteetan, ordea, inguruko herrien gaitzak kutsatu du Boli Kosta ere, eta hamarkada luzetan lozorroan egon diren barne borroka indar biziz loratu dira; gainera, gainbehera ekonomikoa sumatzen hasi dira herrialde hartako biztanleak. Muga bat jartzekotan, Robert Guei Armadako buruzagiak 1999an emandako estatu kolpean ezarri behar da zedarria. Baina usteltzea askoz ere lehenago hasi zen.

Aspalditik usteltzen

Urte askotan Frantziaren kolonia izan ondoren, 1960an lortu zuen independentzia, deskolonizazio prozesu handien ingurumari hartan. Hain zuzen ere, independentziaren aldeko borrokaren buruzagi izan zen Felix Houphouet-Boigny hartu zuen Boli Kostaren agintaritzan Frantziatik banatu ondoren. Alderdi bakarrek sistema autoritarioaren bidez gidatu zuen Houphouet-Boigny Boli Kosta urte askotan. Bi ezaugarri zituen erregimen hark: batetik, lotura estua gerdea

zuen Frantziarekin. Hala, garai bateko metropoliak Boli Kostan zituen interes ekonomiko handiak bermatu ahal izan zituen. Bestetik, paternalista eta populista izan zen Houphouet-Boigny bere herriarekiko.

Gainera, Gerra Hotza oraindik indarrean zegoen garaiak ziren, eta Mendebaldeko herriek zilegi ikusten zuten erregimen diktatorialak bultzatzea mundua bitan banatzen zuen egoera tinkatu hura nolabait orekatzeko. Urteek aurrera egin ahala, ordea, gero eta zailagoa zen gobernu horiek eustea, besteak beste, herritarrak alderdi ugari demokratizazio eske hasi zirelako.

Ondorioz, Sobiet Batasuna hondoratu ostean, eta alderdi ugari sistema eskatzen zuten herritarren protestak hedatu eta gero, hauteskundeak egitea onartu behar izan zuen Houphouet-Boigny 1990ean, hein handi batean, testuinguru berrian, Parisek hala behartuta. Nolanahi ere, diktadore ohia, indartuta ateratu zen bozetatik, bera aukeratu baitzuten berriro ere lehendakari. Dudarik gabe, botere tresneria osoa eta hedabide guztiak bere menera izatea, ezinbesteko laguntza izan zuen. 33 urtez, 1960tik 1993an hil zen arte izan zen Houphouet-Boigny Boli Kostako agintari nagusia.

Iparalde musulmana, hegoalde kristaua

Hura hil zenean ere, gauzak ez ziren gehiegi aldatu: Henri Konan Bedie diktadore zenaren ministroetako batak hartu zuen gobernuaren gidaritzan. Oro har, aitzindariaren politika lerroari jarraitu zion hark, baina emaitzak ez ziren berdinak izan. Batetik, Boli Kostako herritarren artean gero eta gehiago zabaltzen ari zen aginteko elitearen aurkako mesfidantza —Bediek ez zuen Houphouet-Boignyren itzalik—, eta ustelkeria behin betiko amaitzea eta benetako demokrazia eskatzen zutenak gero eta gehiago ziren. Bestetik, herrialdeko arazo etniko eta erlijiosoak gero eta gehiago ari ziren azalartzen, eta horren aurrean Bediek bultzatu zuen politika, iparraldeko musulmanak eta inguruko beste estatuetatik iritsitako etorkinak baztertzeko izan zen, eta, aitzitik, mendebaldeko eta hegoaldeko kristauak babestea. Hain justu, Boli Kosta hegoaldean eta mendebaldean kristauak dira nagusi, eta, iparraldean, ordea, musulmanak. Ildo beretik, iparraldean asko dira, inguruko herri txirotatik —Burkina Faso, Ginea, Mali...— lanera joandako etorkinak.

Azken batean, Houphouet-Boignyren merituetako bat barne tentsio erlijioso eta etnikoak bare mantentzea izan zen, baina Bediek, bere agintea bermatzeko hegoaldeko eta mendebaldeko elite kristauen babesa lortzearen, iparralde musulmana bizitza politikotik kanpo utzi zuen erabat.

Ingurumari horretan, Robert Guei jeneralak estatu kolpea eman zuen 1999ko abenduan. Bazterketa horrekin eta ustelkeriarekin amaitzea zela bere helburua adierazi zuen, eta herritar askok gustura hartu zuten milita-



Biztanleak: 16 milioi.

Eremua: 322.460 km²

Hiriburua: Yamoussoukro (administratiboa); Abidjan (legislatiboa).

Hizkuntza nagusiak: frantsesa (ofiziala), bertako 60 hizkuntza inguru: diula (zabalduena), senufo, anyi, mande, baule...

Erligio nagusiak: musulman, kristau, sinesmen tradizionalak.

Bizi itzaropena: 44 urte gizonetako eta 47 urte emakumeetako.

Dirua: CFA franko.

Esportazio garrantzitsuenak: kakao, kafea, egur tropikala, petrolio, kotoia, bananak, olio, arraina...

J. APEZTEGIA

rraren ekimena. Ez zuen asko iraun, hark ere iparralde baztertzeko jarraitu baitzuen. Herritarren zein nazioartearen babesa galduta, hauteskundeak egitea onartu zuen 2000ko urrian. Aurretik, ordea, Alassane Ouattara iparraldeko oposizioaren buruzagiari debekatu egin zion bozeta aurkeztea, haren gurasoak jatorriz Burkina Fasokoak zirela argudiatuta. Hauteskunderen ondoren, bera izan zela irabazle aldarrikatu zuen Gueik, baina herritarrek matxinatu egin ziren emaitza horien aurka. Laurent Gbagbo beste hautagaiaren garaipena onartu behar izan zuen, azkenean, eta hura izendatu zuten lehendakari berri —Frantziak haren aldeko apustua egin zuen—.

Ehun mila lagun ihesean

Baina horrek ere ez zuen egoera konpondu. Gueik eta Gbagok elkarrekin adiskidetze nazionala bultzatu zuten arren, Ouattarak ordezkatzeko zuten iparraldeko oposizioak baztertzeko segitzen zuten. Horren ondorioz, iazko irailaren 19an estatu kolpea ematen saiatu ziren haren aldeko militarrek, MPC-i Boli Kostako Mugimendu Abertzalea izeneko talde gerrillarian batuta.

Oldarraldi horren ostean, iparraldeko eremu handiak MPC-iren mende daude egun, eta azken lau hilabeteetan borroka handiak izan dira errebelatarien eta Gbagoren aldeko Armadako kideen artean. Su-etena hitzartu zuten, baina ez da bete. Hildakoak asko dira, eta, era berean, ehun mila herritarrek beren bizilekuetatik alde egin behar izan dute.

Frantziak interes handiak ditu Boli Kostan —egun, 20.000 frantziar bizi dira han— eta, ondorioz, zuzenean esku hartzen ari da gatazkan: Estatu horretako Armada ari da su-etena behatzen. Hala ere, errebelatariak behin eta berri salatu dute Gbagoren alde egiten ari direla Frantziako soldaduak. Datorren astean bake elkarrizketak hasiko dira Parisen, baina benetako konponbidea iristeko borondateari buruzko zalantza handiak daude.